

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 605

*EBAZPENA, 2021eko urtarrilaren 18koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, UPV/EHUKo lanpostu bat izendapen askearen bidez betetzeko deialdi publikoa ebazten duena.*

Materialen Fisika Unitatearako Kargudunaren idazkaria (ikastegiak) lanpostua betetzeko deialdian, ezarritako epean ez denez eskaerarik aurkeztu eta deialdia ebazpenaren laugarren oinarria betetzeko, eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearekin bat etorritik (1989ko uztailaren 28ko EHAA), Gerentziak, Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2017ko urtarrilaren 25ean hartutako ebazpena, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena (2017ko otsailaren 3ko EHAA) erabiliz, honako hau

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Behean azaltzen den lanpostuaren prozedura amaitutzat jotzea, eta deialdia hutsik gelditu dela adieraztea.

- Izena: Kargudunaren idazkaria (ikastegiak).
- Erref.: F 1024.
- Eskala: Administraria / Administrari laguntzailea.
- Taldea: C/D.
- Zenbatgarrena: 31.
- Maila: 18.
- Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigorrezko data: 2014ko urtarrilaren 1a.
- Langunea: Materialen Fisika Unitatea.
- BE.
- Campusa: Gipuzkoa.

Bigarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertzeke errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean. Nahiago bada, administrazio-auzietako errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Administrazio Auzietako Epaitegi egokian; horretarako hilabete bi egongo dira, Ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamuneari hasita. Hori guztia, Unibertsitateko Estatutuetako 160. artikuluan, Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 123.artikuluan eta uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeko 8. eta 14.artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioa, 2021eko urtarrilaren 18a.

Gerentea,  
MIREN LOREA BILBAO ARTETXE.